

TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

2.- ELIZATXO AUZOKO 16-18 ERAIKINETAN ERAIKITAKO IGOGAILUAREN OBRA AMAIERA. (Txos. EV. 217_21)

Elizatxo auzoko 16-18ko jabekideek eraikinaren igogailua kanpotik jartzeko egin diren obren amaierako dokumentazioa aurkeztu dute.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

- Aztertu da aurkeztutako dokumentazioa eta Udal Ordenantzen II. Liburuaren X. Tituluaren 12. eranskinean jasotakoarekin bat dator.
- 2021ko azaroaren 18an Udal Arkitektoak obren ikuskaritza egin du eta itxuraz egindako obrak aurkeztutako proiektuarekin bat datoz eta ez da urbanizazio publikoan kalterik sortu.
- Udal ingurumen teknikariak oniritzia eman dio hondakinen kudeaketaren inguruan aurkeztu diren agiriei.

Proposamena:

Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:

- 1.- Aztertu da aurkeztutako dokumentazioa eta egindako ikuskaritzaren ondoren, igogailuaren lehen erabilera ematea.
- 2.- Bestalde, itxuraz ez da espazio publikoan kalterik sortu eta hondakinen kudeaketaren inguruko agiriak Ingurumen teknikariak ontzat eman ditu, hortaz, espazio publikoaren zaintza eta hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritako abalak bueltatzea dago (3.000,00 € eta 600,00 €).
- 3.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari dagokionez, behin betiko likidazioa 45.088,24€ izan denez, honen %5eko 2.254,41€ da. Hortaz, behean adierazitako epean (4. atala), hasierako kitapenarekin alderatuz, 125,00€ko ordainketa egin behar dute:

Zerga-oinarria	45.088,24 €
Tarifa	%5
Ordaindutako icio (92/2017-Lik)	2.129,41 €
GUZTIRA	125,00 €

- 4.- Diru sarrera egiteko hilabete bat dago, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori agortzen denean premiamenduzko prozedurari ekingo zaio, eta ordaindu beharreko kopuruari errekarua gaineratuko zaio.

Lekua: laguntzeko entitateetan, horretarako honekin batera ordaintzeko-gutuna ematen da.
